

Astero, urtero eta egunero

Astero aldizkaria ateratzea nahikoa ez eta 80ko hamarkadan urtea Urtekariak borobiltzea erabaki zuen ARGIAk. 90eko hamarkadan egunero bere aletxoak jartzen hasi zen, egutegia medio. Liburuei eta jokoei ere ekin zien, baina astekaria saltzen jarraitzea ahaztu gabe.

- Trrr... trrr... trrr!
 - Zein da?
 - Zeruko ARGIA. Arantzazu?
 - Bai, emen gaituzu negu biotzean elurgirotan sartuak.
 - Ba, urteak azkena duala ta, zerbait jakin nai genduke zuen Egutegiaren berri. Noiztikoa dezue zuen ormake Egutegi ori?
 - 1936'garren urtean jaioa da. Arantzazu'ko Adre Maria'ren koroatzearen urrezko eztaiak zirala

ta, orduantxe hasi zan gure euskal egutegia (...).

-Zertarako azaldu zenduten egutegi ori?

- (...) Egutegiko orritxo orrek ez du inor bildurtzen eta poliki-poliki gure erria euskeraz irakurtzen oitzan da".

Elkarrizketa hau Nemesio Etxanizek jaso zuen Zeruko ARGIAren 1965eko lehenengo alean.

Astekariak urte asko zeramatzan gure herria euskeraz irakurtzen ohi

zedin ahalegintzen, baina 1991n, Nafarroako AEKren ekimen batean oinarrituta eta Arantzazuko almanake itxurako egutegia eredu, ekoizpena dibertsifikatu eta egutegia egitea erabaki zuen. Aldizkarian berta iragarri zenez, "takoan joango da" eta "santutegia, ilargi, itsaso eta eguzkiaren datuak, txisteak, errezetak..." zituen. Ordutik, denetik topatu ahal izan dugu egun bakoitzaren atzean: landareak zain-

Bakoitzak harpide berri bat egingo balu...

Azken hamarkadatan astekaria egiten duen enpresak produktioa dibertsifikatu arren, hasieratik aldizkaria bera izan da produktu nagusia, eta produktu hori saltzeko ederki baliatu du bere burua. Goiz hasi zen Zeruko ARGIA autopromozioan. "Katolikoa al zera? Maite al dituzu euskaldunen oitura on eta garbiak? Erljioa sendo eta euskaldunen oitura onak gorde nai badituzu Zeruko Argia'n dezu laguntzalle bikaña. Euskaldunen etxe gutzietan ezta falta bear Zeruko Argia" zioen 1955eko maiatzeko aleak.

1971n mezu soil eta zuzena aukeratu zuten: "Arpideak bilatu, arpi-deak egin, Zeruko Argia zabaldu". H-aren erabilera zabaltzea beste baterako utzi zuten, nonbait.

1976. urte hasieran aldizkariaren formatua aldatu zen eta egunkaritzarra aldizkari bihurtu zen.

1975eko azken alea zeharkako mezu bat helarazteko baliatu zuten. Astekariaren aldi eta egitura aldaketa

azaldu ondoren, zera zioen testuak: "Bide batez, aldi berri honetarako, laguntza eskatu nahi genieke euskaldun guztiei". Handik egun gutxira 1978ko urtarrilaren 18an mezu logikoa luzatu zuen astekari berriak: "Bakoitzak harpide berri bat gehiago egingo balu, orduan bai ondo". 1976 euskal prentsan urtea izan zen eta bi urte geroago *Deia* eta *Egin* egunkariak agertuko ziren. Tartean, 1977an *Anaitasunak* eta Zeruko ARGIAk batera mezu hau helarazi zieten: "Geu gara euskal prentsa".

1980ko hamarkada kinka larrian hasi zuen ARGIAk eta laguntza eskatzeko eguzki antinuklearra erabili zuen "Desagertzea? Ez, eskerrik asko" lelopean. Eta mezuaren asmatuko zuten, ez baitzen desagertu.



ARGIAk 80etako olatu antinuklearra hartu zuen bere burua salbatzeko.



Goian, 1998ko egutegiaren iragarkia. Bide batez, taula dotoreak ere prestatu eta salgai jarri ziren, takoari eusteko. Lerro hauen ondoan, 1991 amaierako iragarkia; lehen egutegia iragartzeaz gain, urte hartako Euskal Kulturaren Urtekariaren edizioaren berri ematen zen. Egutegiaren estreinako urtean taulak oparitu egin ziren, 98koak bezain landuak izan ez arren.

tzeko aholkuak, sudokuak, biorafia txikiak, efemerideak...

Baina urte batzuk lehenago, 1983an, ARGIArekin batera beste produktu bat agertu zen: Euskal Kulturaren urtekaria. Ordutik, urtez urte, ARGIAko kazetariak urtean zehar kulturak eman dituenak biltzen dituzte eta, horrez gain, hasieratik aurkibide bat erantsi zaio euskal kulturaren pertsona, elkarte eta erakunde nagusien kontaktua biltzeko. Hala, kaleratu eta berehala erreferente bihurtu zen eta, zenbait urtez, Internet oraindik etorkizuneko ametsa zela, aurkibidea disketean ere argitaratu zen bilaketa errazteko.

Urtekariak liburu itxura zuela aprobetxatuz-edo, urte hartan bertan Zeruko ARGIA enpresak lehe-

nengo liburua argitaratu zuen: *Arpa Jotzen* txiste bilduma. Txistegintzak gehiagotarako eman zuen eta aurrerago *Txorakikeriak* liburu hirukoiza kaleratu zen, beti ere Kike Amonarrizen eskutik. *Mantxut* lokuzio bildumak ere hiru ale eman zituen, eta mendi ibilaldi eta txangoek, aldiz, beste bi: *Ihesi* eta *Euskal Herriko gida*. Paperean kaleratu ziren baita ere *60ko hamarkadako hitzak* eta *Franco bilda*, Zeruko ARGIAko elkarrizketa zahar hautatuak biltzeko.

Ondoren jokoak etorri ziren, *Badakit* sailaren eskutik. Eta ukitu ezin badaitezke ere, astekariarekin batera, hainbat produktu eskaintzen ditu ARGIAk sareratu zenetik.

Guztia, poliki-poliki, gure herria euskaraz bizitzen ohitu dadin. ■



Gizakia Ilargira iritsi zela eta Rikardo Arregi hil zela zioen azala. 1969ko uztailaren 27a.



Gara-berri garagardoaren iragarkia. 1977ko uztailaren 24a.

ZAINDU BIHOTZOK

Bazoazte eta ondo joan. Eta ez ahaztu hortzak garbizteko zepiloa, eta ondo orde dirua. Gogoan hartu Niveak bigotea hazarazten duela eta haurrak mareatzen direnetakoak badira eta abusatu Biodraminarekin. (...) Telefonoaz ahaztu eta besterik gabe atsedenaldi bat hartu nahian Auñamendira pake bila zoaztenok, eta hain zuzen ere pakez haseturik Bartzelonara gerra bila zoaztenok, aurkitu ditzazuela behar dituzuen gerra eta pakeak.

Ramon Saizarbitoria eta Koldo Izagirre. 1979ko uztailaren 22a.